



ARISTI, Pako; MARKEZ, Mikel
Plazer bat izan duk, Benito!

Donostia: Elkar, 2012
 258 or. ; 21 cm.
 ISBN: 978-84-9783-991-4

Hona hemen liburu diferente bat. Kontatzen duenagatik zein kontatzeko moduagatik. Egileen hitzetan, Benito Lertxundiren “biografia espirituala” da.

Mikel Markez kantariak eta Pako Aristi idazleak hilero Benito Lertxundirekin bazkaldu eta maiz eguna hiltzen ikusi arte luzatzen ziren solasaldietan oinarriturik idatzi dute liburu hau. Biek ala biek, gutako gehienok bezala, diskoen bidez izan zuten estreinakoz Lertxundiren berri; geroago, lanbide berekoak izateak eraman zuen Markez, 17 urterekin, kantaria pertsonalki ezagutzera, eta Aristiren kasuan, kantagintzari buruz idatzitako liburu *–Euskal kantagintza berria 1961-1985* (Erein, 1985)– eta artikuluek eman zioten aukera Lertxundirekin harremana izateko. Hurrengo urteetan, Euskal Herrian zehar Lertxundiren elkarizketatzaile modura egindako saioak direla medio, asko eskatu da bien arteko tratua. Jakina da bestalde, aspalditik konplize artistiko eta ideologikoak direla Markez eta Aristi, mundu ikuskera antzekoa partekatzen dutela, elkarrekin landutako hainbat disko eta ikuskizunetan islatu dutena: *Tribuaren hitz galduak*, *Abiadura handiko urte baten kronika*, *Tabuak saltsa berdean...* eta beste.

Orain dela zortzi urte inguru hasi ziren Aristi, Markez eta Lertxundi mahai baten bueltan biltzen. Txandaka, bakoitzaren bizitokian elkartzen ziren bazkariak egiteko. Urrestillan batean, Aian bestean eta Orion hurrengoan. Enkontru horietako bakoitza modu bertsuan amaitu ohi zen, elkarri eskua eman, eta «plazer bat izan duk, Benito» esaten zioten lehen biek Lertxundiri. Une batetik aurrera, solasaldietan esandakoen interesa zela-eta haiek grabatzen hasi ziren, inoiz liburu batean jasoko zituzten jakin gabe. Haatik, tertulia haietako grabazioak (50 ordu inguru) paperera ekartzen hasi ziren Markez eta Aristi, eta horren lagin bat Debako Udalak diruz lagundutako Tene Mujika bekara aurkeztu zuten. Epaimahaiak aukeratutako bi lanetako bat izan zen, eta horri esker irakurri ahal dugu orain *Plazer bat izan duk, Benito!* (Elkar).

Irakurleak ez du kantariaren biografia bat aurkituko, ezta elkarriketa liburu bat ere, baina bietatik dauka lan honek, saiakera filosofikotik, pasadizoen kontakizunetik, kazetaritzaetik eta literaturatik ere baduen bezala. Are gehiago, norbere burua ezagutzeko aholkua eskaintzen duten autolaguntza liburuen jitea ere hartu ahal zaio zenbait orrialdetan. Hibrido bat da beraz, berezia eta kasik bakana orain arte euskarazko argitalpenen artean.

“Gure asmoa da gure baitatik hasita, zubiak eskaintzea irakurleari, Benitoren gana iris-teko”, azaldu zuten Aristik eta Markezek bekaren aurkezpenean, artean liburuaz idazteko zegoela. Bi egileen hasierako asmoa zen solasaldien edukia galdera-erantzuna formularen bidez ematea irakurleari, baina Lertxundik berak aldarazi zien plana. Liburuan bertan bi egileek azaltzen dutenez, “eredu guztiez mesfidati den gizona [Lertxundi] are mesfidatiagoa da bere burua eredu bihurtzeko arriskuaz. Lanbroaren irudia erakusten zigun: bere hitzak, hitzez hitz liburu batean agertzea baino nahiago zuela lanbro baten moduan bustitzea orriok, tantak han, laztanak hemen, irreberentziak hurrena, kontakizun samurragoak gero”. Hortik beren ondorioa ateratu zuten Aristik eta Markezek: “Hark bere iritzia agertu baino nahiago zuen gu inspiratzea, guk barruan lokarturik daukaguna ateratzeko. Bere bizitzan sortzaile handia den gizonak sormena nahi zuen eragin guregan, eta ez miresmen akritikoa edo mezu-bilketa takigrafikoa.

Maisu onaren papera hartuz, gogoeta egitera bultzatu gaitu Benito, ez harengandik ikas genezan, geure buruaren maisu izan gaitezen baizik”. Hortaz, “gizon baten kronika baino gehiago jarrera baten kronika” dela liburua gaztigitzen digute egileek lehen orrialdeetan.

Jarrera hori bi hitzetan laburbildu daiteke: gogo askea, edo nahiago bada, askatasun psikologikoa. Ezein sinesmen, dogma, balore, doktrina, hitz edo kategoriak antolaturiko edo ezarritako ikusmoldetik ihesi dabilen pentsalari baten muina –desikastearen beharra, norbere buruaren jabe izateko– jasotzen du liburua bere 250 orrialde pasatxoetan. “Pentsamenduaren abentura bizi du” oriotarrak, Aristik eta Markezek diotenez, “harrigarria da gai bat hartu, hariel tiraka hasi eta zein ibilbide sakon eta konplexuak burutzen dituen”. Lertxundiren “eguneroko gimnasia mentalaren” galbahetik iragazitako gogoetak partekatzeko ez ezik, haiek osatzeko eta norbere ibilbidea egiteko gonbitetzat hartzen zuten biek solasaldi haie-tako bakoitza. Aristi “energiak beterik” itzultzen zen etxera, eta Markez berriz, “nekatuta, hustuta bezala”.

Hala ere, Lertxundiren nahia bestelakoa izan arren, liburuaren lehen erdia elkarrizketa modu konbentzionalean idatzita dago zatirik nagusian, galdera-erantzun ereduari atxikiz gutxi gorabehera, eta gai bakoitza testuinguruan kokatzeko bi egileek egindako sarrera moduko gogotez tartekaturik. Ez da dudarik, denetarik hitz egiten zutela bazkalosteko hitz-aspertu luze haietan. Gai horietako batzuk, Lertxundiren alderdi ezagunenarekin lotuta daude, kantagintzarekin alegia; sormen artistikoak, kantuaren ahalmen baltsamikoak, Zuberora deskubritu zuenekoak, hango kantatzeko manieraz eta zuberotarrek Lertxundiren kantuei egindako harreraz, edota *Ez Dok Amairu* taldearen sorreraz eta eraginaz izandako hizketaldiak jasota daude liburuan. Baita hain gozoak ez diren oroitzapenak ere, kantaldietan Lertxundiri txistua jotzeko ohitura zabaldu zenekoak esaterako. “Nik badut ezaugarri bat agian beste inork izan ez duena Euskal Herrian: aldekoak eta kontrakoak berdin izan ditut, eta nire kontrarioak aktiboak izan dira. Begiradan sumatzen nien, berehala ikusten nuen kontrarioen distira begietan”, esaten du Lertxundik pasarte batean. Lertxundiren obraren zaleak arretaz eta atsegi-nez irakurri dituen orrialdeak dira hauek.

Gutxiengo dira ordea, kantagintzarekin zuzenean lotutako pasarteak –zeharka ordea, liburuan esandakoetatik askok dute modu batera edo bestera isla Lertxundiren kantuetan–, eta ugariagoak dira komunikabideetako elkarrizketetan galdetu ohi ez zaizkion gaiei buruzkoak. Batzuk aipatzearren: politika eta biolentzia –“jakin behar dugu biolentzia guztiak ez direla politika, baina politika beti, beti, beti, beti, biolentzia dela”–; astrologo batek oparitutako Jiddu Krishnamurti filosofoaren liburu batek bere bizitzan izan duen eragina; Elizarekin “mozteko” izan zituen arrazoiak; sexua –“nik joera handia izan dut sexurako. Garai bat izan zen horretarako bakarrik bizi nintzena, obsesionatuta gainera”– eta fideltasuna –“ni mentalki ez nauk batere fidela, alderantziz”–; heriotza –“oztopo moduan ikusten dugu, ez garelako konturatzten hiltzen ari garela oraintxe bertan”–; arrauna –“Orioko arraunak ehun eta piku urte haue-tan marraztu duen historia, erriok eta herritarrek beren arraun tradizioarekin duten pak-tu moduan ikusten dut. Elkarbizitza bat da. Nik hau emango diat eta trukean hik hau eman behar didak”–...

Kontakizuna bizia da lehen zati honetan, tarteka gonbidatuak gehitzen dira solasaldietara (Patziku Perurena idazlea, Ibon Gaztañazpi arraunlari ohia), eta irakurraldia interes-garriaz gain entretenigarri eta arina ere gertatzen da. Horretan laguntzen du zenbait kapitulu esoterikoren ezohikotasunak, hain zuzen ere Aristik eta Markezek norbere erregresioak azaltzeko idatzitakoak eta astrologiaren inguruak. Izan ere, astrologiarekiko zaletasuna partekatzen dute Lertxundik eta Markezek, eta azken hau kartak botatzen ere ikasitakoa da. Hortaz, bazkarietako batean Lertxundiri kartak botatzen zizkion bitartean esandakoak eta kaprikornioei buruz –hori da Lertxundiren zeinu astrala mendebaldeko horoskopoa– egindako ezohiko elkarrizketa ere irakurri ditzakegu.

Bigarren zatian ur filosofiko sakonagoetan murgiltzen dira solaskideak, pentsamendu-ua, gorputza, gizakiaren bikoiztasuna (fisiko-espirtual), sinesmenak, kultura, heriotza, eternitate, egoa, amodioa, zorientasuna edota baloreak bezalako kontzeptuak hartzen dituzte hizpide, eta orduan hasten da Lertxundik aipatutako lanbroaren metafora gauzatzen.

Haren esanak nabarmen laburragoak dira, eta Aristi eta Markezen hausnarketek protagonismo edo pisu handiagoa hartzen dute –atal bakoitza nork idatzi duen zehazten ez bada ere, Aristiren eskua antzematen da zati honetako kapitulu gehienetan–, biengan sormena eragiteko Lertxundiren desioa praktikan jarritz. Lehen zatiko bizitasuna apaldu egiten da bigarren erdian, edukia astunagoa da, eta irakurraldiak beste erritmo bat eskatzen du, geldoagoa eta patxadatsuagoa, mami guztia barneratzeko. Ez dira falta, hala ere, atal hunkigarriak, Markezek hil-hurren zegoen lagun bati Lertxundiren *Irail tristea* kantaren grabazio bat oparitu zioneko kasu.

Bestalde, Lertxundiren pentsamoldearekiko mirespen eta lilura sarri agerian uzten dute bi egileek, honakoa bezalako baieztapenen bidez: “Pentsamendu askearen oinarri sendoei jarraituz, unean-unean berritzen zituen teoriak eta ideiak, gauza berriak aportatuz, nahasmenean edukitakoak zuzenduz. Askotan gai berberak aterata izan dira, baina beti ziruditen berriak”. Tonu lausengari zehatz hori errepikakor eta betekorra egin zait liburuak aurrera egin ahala.

Hala eta guztiz ere, berriz diot, liburu diferente bat da, ez agian Benito Lertxundiren kantagintzaren zaleak espero zezakeena, baina bai gomendagarria kantuetatik harago Lertxundiren pentsamenduan eta bizi ikuskeran sakondu nahi duenarentzat.

Jon Eskisabel



CAMUS BERGARECHE, Bruno
Para entender la cultura vasca

Madrid: Los Libros de la Catarata, 2012
 222 p. ; 21 cm.
 ISBN: 978-84-8319-673-1

Bruno Camus Bergareche es profesor titular de Lingüística Románica –según reza en su página personal de Internet- y ha elaborado por encargo de Los Libros de la Catarata, “Para entender la cultura vasca”; un libro en el que hace una amplia incursión, con un lenguaje preciso y divulgativo, en algunos de los rasgos que hacen tan singular la cultura vasca.

Meritorio trabajo

No se puede sino agradecer que un profesor de la Universidad de Castilla La Mancha haya hecho un esfuerzo tan loable por comprender otra cultura y, en buena parte de sus incursiones temáticas, lo hace sin prejuicios y con la distancia del rigor, dando lugar a un libro útil y aportativo y que permite adentrarse con notable conocimiento en los entresijos de las cuestiones abordadas.

En el texto sostiene que la idea cultural e histórica de Euskal Herria –incluyendo Navarra e Iparralde– ya aparece en el siglo XVI. El capítulo relativo al euskera –como corresponde